

9/2014 FORU ARAUA, ekainaren 11koa, kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzkoa (BAO Ekainaren 17koa)

Jakinarazten dut Bizkaiko Batzar Nagusiek 2014ko ekainaren 11ko Osoko Bilkuran onartu dutela 9/2014 FORU ARAUA, ekainaren 11koa, kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzkoa, eta arau hori aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dut, aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

EKAINAREN 11KO 9/2014 FORU-ARAUA, KREDITU-ERAKUNDEETAKO GORDAILUEN GAINEKO ZERGARI BURUZKOA

HITZAURREA

2014ko apirilaren 21eko 7/2014 Legearen bidez, Ekonomia-itunaren Batzorde Mistoak Ekonomia Ituna aldatzeko 2014ko urtarrilaren 16an hartu zuen erabakia onetsi da.

Ekonomia-itunaren Batzorde Mistoak hartutako erabaki horren edukiak -Batzar Nagusiek 2014ko martxoaren 26ko 1/2014 Foru Arauaren bidez berretsi dute erabaki hori, eta aipatutako legeak aldarrikatu du- berekin ekarri du tributu berriak ituntzea, zegoeneko itunduta zeuden beste batzuen ituntze-baldintzak aldatzeaz gainera.

Kreditu Erakundeetako Gordailuen gaineko Zerga da ituntze berriko tributu horietako bat, Estatuan 2012ko abenduaren 27ko 16/2012 Legearen bidez arautua. Ekonomia Ituneko 23.ter artikuluan xedatutakoarekin bat, Estatuak une bakoitzean ezarritako funtsezko eta formazko arau berberak aplikatu behar dira zerga hau ordainarazteko. Hori dela eta, beharrezkoa da xedapen hau ematea, batetik, zergapetze mota berri honi buruzko arauketa gure antolamenduan sartzeko eta, bestetik, arauketa horretan Ekonomia Itunean ezarritako lotura-puntuak jasotzeko.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 55. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan xedatutakoa betetzeko, memoria ekonomikoari buruzko txostena eta genero-eraginaren ebaluazioari buruzko txostena doaz foru arau honekin batera.

1. artikulua. Izaera.

Kreditu Erakundeetako Gordailuen gaineko Zerga zuzeneko tributua da, eta kreditu erakundeetan eratutako gordailuak kargatzen ditu, foru arau honetan aurreikusitako modu eta baldintzen arabera.

2. artikulua. Zerga-egitatea.

Honako hau izango da zerga-egitatea: foru arau honetako 7. artikuluan adierazitako zergadunek hirugarrenen -izaera juridikoa aintzat hartu gabe- funtsak edukitzea, baldin eta zergadunok funtsok itzultzera behartuta badaude, Espainiako lurraldetik kanpoko sukurtsaletan edukitako funtsak izan ezik.

3. artikulua. Aplikatu beharreko arauak.

1. Ekonomia Ituneko 23.ter artikuluko xedatutakoaren esparruan, foru arau honekin eta berau garatzen duten xedapenekin bat eskatuko da zerga.
2. Foru arau honetan xedatutakoa gorabehera, indarrean jarraituko du Espainiako barne-ordenamenduaren parte bihurtu diren nazioarteko tratatu eta hitzarmenetan xedatutakoak.

4. artikulua. Zergaren ordainarazpena

1. Hirugarren batzuen funtsak mantentzen diren kreditu-entitateen egoitza nagusia, sukurtsalak edo bulegoak Bizkaiko Lurralde Historikoan daudenean galdatuko du Bizkaiko Foru Aldundiak Kreditu-entitateetako Gordailuen gaineko Zerga.

Edonola ere, bertaratu gabeko merkaturatze-sistemen bidez gordetzen diren funtsen gaineko zergaren eta lurralde bati atxikitze modukoak ez diren gainerako zergen ordainarazpena Bizkaiko Foru Aldundiari esleituko zaio, lurraldeari atxikitako gordailuetan duen partaidetzaren arabera dagokion proportzioan.

2. Zerga honen konturako ordainketak, berriz, aurreko zenbakian jasotako irizpidearekin bat galdatuko ditu Bizkaiko Foru Aldundiak.

5. artikulua. Salbuespenak.

Zergatik salbuetsita egongo dira honako hauek:

1. Espainiako Bankua eta moneta erregulatzeko agintaritzak.
2. Europako Inbertsio Bankua
3. Europako Banku Zentrala
4. Kreditu Ofizialeko Institutua (KOI).

6. artikulua. Zergaldia eta zergaren sortzapena.

1. Zergaldia urte naturala izango da.
2. Hala ere, jarduera Espainiako lurraldean hasten bada, honako hau izango da zergaldia: jarduera hasten den egunetik urte naturala amaitzen den egunera arteko tartea.
3. Dena den, zergaldia amaituko da erakundea edo sukurtsala iraungitzen denean edo Espainiako lurraldean bere jarduera amaitzen duenean.
4. Zergaldiaren azkeneko egunean sortuko da zerga.

7. artikulua. Zergadunak.

Honako hauek dira zergadunak:

- a) Kreditu erakundeen alorreko indarreko zuzenbidea Europako Erkidegoetakora egokitu beharrari buruzko 1986ko ekainaren 28ko 1298/1986 Errege Lege Dekretuaren 1. artikuluan definitutako kreditu erakundeak.
- b) Atzerriko kreditu erakundeen Espainiako lurraldeko sukurtsalak.

8. artikulua. Zerga-oinarria.

Zergaren zerga-oinarria zehazteko, zergaldiaren iraupena gorabehera, kreditu-erakundeen balantze erreserbatuaren pasiboko «Bezeroen gordailuak» izeneko 4. partidari dagokion urte naturaeko hilabeteen amaierako saldoen (banakako egoera-orri finantzarioetan jasoak) batez besteko aritmetikoa kalkulatu da.

Horretarako, amaierako saldoari 4.1.5, 4.2.5, 4.3.2 eta 4.4.5 partidetan sartutako «Balorazio-gatikoko doikuntzen» zenbatekoak kenduko zaizkio.

Paragrafo honetan adierazitako parametroak bat datoz 2004ko abenduaren 22ko Zirkularren II. tituluaren eta IV. eranskinean definitutakoekin —Espainiako Bankuak kreditu-erakundeei egindako Zirkularra, finantza-informazio publiko eta erreserbatuaren eta egoera- orri finantzarioen ereduaren gaineko arauari buruzkoa—, bai eta hori ordeztzen duen araudikoekin ere.

Erakunde edo sukurtsalen bat iraungitzen bada edo Espainiako lurraldean jarduteari uzten badiu abenduaren 31 baino lehen, eta zerga honen kargapeko gordailuak beste zergadun bati eskualdatzen badizkio, eta gordailuen eskualdatze hori eragiketaren urteko urtarrilaren 1etik aurrera kontabilitate-ondorioak izateko moduan hitzartu bada, eskuratzailerak bakarrik hartu beharko ditu kontuan gordailu horiek, zerga honen ondorioetarako.

9. artikulua. Zerga-kuota.

Kuota osoa lortzeko, zerga-oinarriari 100eko 0,03ko karga-tasa aplikatuko zaio. Kuota diferentziala lortzeko, kuota osoari egindako konturako ordainketa kenduko zaio.

10. artikulua. Autolikidazioa.

Zergadunek autolikidazioa aurkeztu beharko dute zergaldiaren hurrengo urteko uztailean, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehazten duen tokian eta moduan.

11. artikulua. Konturako ordainketa egiteko betebeharra.

Zergadunek, ekitaldi bakoitzeko uztailean, zerga honen konturako ordainketaren autolikidazioa aurkeztu beharko dute, ekitaldi horretako zergaldiari dagokiona, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezartzen dituen tokian eta moduan. Karga-tasa aurreko zergaldiko zerga-oinarriari aplikatuz ateratako zenbatekoaren 100eko 50 izango da autolikidazioaren zenbatekoa.

Aurrekoa gorabehera, 2014ko zergaldiari dagokion konturako ordainketa 2014ko abenduan aurkeztuko da, eta hau izango da haren zenbatekoa: zergadunaren 2013ko banakako egoera-orri finantzarioei buruz 8. artikuluan dauden arauari jarraituz kalkulaturako zerga-oinarriari karga-tasa aplikatuz ateratzen den zenbatekoaren 100eko 50.

12. artikulua. Arau-haustea eta zehapenak.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan xedatutakoa beteko da bai foru arau hau bai berau garatuko duten arauak ez betetzegatik egiten diren arau-haustea kalifikatzeko eta zehapenak ezartzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.

Foru arau honek 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izango ditu ondorioak.

Bigarrena.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuak foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emango dituzte.

Bilbon, 2014ko ekainaren 11n.

Batzar Nagusietako Lehenengo Idazkariak,

JON ANDONI ATUTXA SAINZ

Batzar Nagusietako Lehendakariak,

ANA MADARIAGA UGARTE